ZERBITZUGUNEA ERABILTZEKO ARAUAK

- Udal ordenantza, autokarabanetarako Iruñeko zerbitzugunean autokarabanak edo etxebizitza-ibilgailuak aparkatzea eta gaua pasatzea arautzen dituena.
- Arau fiskala, autokarabanetarako Iruñeko zerbitzugunean karabanak edo etxebizitza-ibilgailuak aparkatu eta gaua pasatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak erregulatzen dituena.
- Webgunea: http://www.pamplona.es/autocaravanas

1) Aparkatu daitezkeen ibilgailuak: bakarrik **etxebizitza-ibilgailuak** (fitxa teknikoaren zk.ak: 2448, 3148, 3200, 3248, 3300 edo 3348).

2) Prezio publikoa **ordaindu** beharra dago.

3) Aparkatutako ibilgailuek **errespetatuko** dituzte beti ere plaza bakoitzaren mugak eta **ibilgailuaren atzeko aldea zirkulazio-erreirantz dagoela aparkatuko dute**.

4) **Gehienez 48 orduz jarraian egon daiteke** aparkaturik zerbitzugunean. Aparkaleku-plaza utzi eta gero ezin izanen da zerbitzugunean aparkatu astebete igaro arte plaza utzi zenetik.

5) **Ur gris eta beltzak botatzeko gehienez ere 45 minutu erabil daitezke.** Gaua bertan pasatzen ez duenak dagokion prezio publikoa ordaindu beharko du zerbitzu horregatik.

6) Biltegiak husteko eremuan ezin izanen da aparkatu, ezta oztoporik sortu ere xede horretarako erabiltzen ari ez delarik.

7) Espresuki **debeku** da edozein ibilgailu mota **garbitzea**.

8) **Debeku** da **kanpatzeko tresnak** paratzea eremu publikoan zein aparkatzeko plazetan, hala nola mahaiak, kadirak edo olanak, leku espresuki baimenduetan ez bada.

9) Erabilitako eremua **garbi** utzi behar da erabili ondoren. **Sarrera ondoko aldean**, suhiltzaileen parkearekiko lursail mugakidean, bada eremu bat **gaikako zabor-bilketarako ontziekin**.